

OSOKO BILKURA 2021-10-21

Organoa: Udal Plenoa
Izaera: Ez-Ohikoa eta premiazkoa.
Deialdia: Lehena
Eguna: 2021-10-21
Ordua: Hasiera 18:33etan.
Bukaera 19:42etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Vicente Urrutia Elexpuru jauna (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)

- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna
Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez dira bertaratu:

- .- Jon Kepa Guericagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)

AZTERGAIK

1. Onartzea, hala badagokio, bilkuraren premia.
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022rako ordenantza fiskalen aldaketa onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

BILERA:

1.- Onartzea, hala badagokio, bilkuraren premia.

Alkateak Kontu-hartzaileari hitza eman dio. Kontu-hartzaileak adierazten du epeei dagokienez, ordenantza fiskalak hurrengo ekitaldia baino lehen GAOn argitaratuta egon daitezen, beharrezkoa da osoko bilkura lehenbailehen gai honi buruz erabaki bat hartzea. Bilkuraren beharra arrazoituta, Udalbatzak, aho batez, onartu du bilkuraren premia eta beharra.

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022rako ordenantza fiskalen aldaketa onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du, EH Bildu udal taldeak proposatua, -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

2021eko urriaren 19an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez:

“21/2003 Foru Arauaren 62, 63 eta 64 artikuluek diotenari jarraiki,

Ogasun Batzordearen proposamenari jarraiki, gaia aztertu eta bozkatu ondoren, 2021-10-20ko Ogasun Batzordeak, aho batez, ALDEKO IRIZPENA EMAN DIO honako

AKORDIO PROPOSAMENARI:

4.- 2022ko Zerga Ordenantza: Irizpena

Ogasuna Batzordeak honako irizpena ematen du:

1.- Gehiengoz (EHBildu, alde; EAJ, aurka), EHBildu taldeak proposatutako 2022ko Zerga Ordenantzaren aldeko irizpena ematea. Laburpena honakoa da:

“

2022 urteko udal ordenantzak osatzeko, azken asteetan egin ditugun proposamenak oinarri hartuta eta EAJk egin dizkigunak aztertu ondoren EHBilduko Udal gobernu taldetik hurrengo proposamenak ekarri ditugu Ogasun Batzordera. Aipatu behar dugu, ordenantzetan erabakitzen denak udal finantzaketan garrantzia nabarmena duela eta horrek, guztioi, alde batetik arduraz eta bestetik seriotasunez jokatzera eramane behar gaituela:

Sozioekonomia batzordean landu ditugunak:

- Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak herriari eta herritarrei egiten dioten ekarpenagatik, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergari aplikatuko diogun hobaria %75ekoa izatea proposatzen da, interes bereziko eta udal onurakoak izendatuz.*
- Establezimenduen jarduera ikuskapenaren tasa, Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzeko asmoaz, %40ko hobaria izatea proposatzen da.*

Landa garapenetik jasotakoak:

- Segregazio tasa, lursailaren azaleraren araberakoa da, ta ez segregazio horrek udalari sortzen dion lanaren arabereakoa. kasu batzutan dirutza bat irtetzen da, eta desproporzionatua dala iruditzen zaigu. Ordaindu beharrezko gehienezko kopurua 200€ izatea proposatzen da.*
- Larreratze tasari dagokionez, Aloabel elkarteak eta Udalak deituriko auzolanetan parte hartzen duten ganadu-zaleei %100eko hobaria aplikatuko zaie, baina kasu honetan ere, mugatuta egongo da: Gehienez 150 euro hobarituko dira. Inguruabar hau ziurtatzeko egiaztatzea eskatuko da*

Gazteriatik jasotako proposamenekin bat egiten dugu:

- Alde batetik, LUDOTEKako tasa, orain arte urte osokoa izan da. Proposatzen digute urte erdiko ere posible egitea, kurtso erdian apuntatzea nahi dutenek posible izan dezaten tasaren “erdia” kasu honetan ordainduta*
- Bestetik, udalekueetan egon izan den zaintza zerbitzua, orain arte ez du udalak kudeatu. Baina hurrengo urtetik aurrera udaletik eramango da kudeaketa eta horri dagokion tasa ere*

ordenantzetan sartu beharra dagoela aipatu digute. Horrekin batera tasen zenbatekoa “borobildu” egin dute

Energia berriztagarriak sustatzeko lehendik ordenantzetan jasota genuen bi puntu osatzea proposatzen dugu:

- OHZ, Ondasun Higiezinaren gaineko zergan, Eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko puntuak dituen hobariei, geotermia, aerotermia eta biomasa sistemak ere gehitzea egoki ikusten dugu.
- Era berean, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan ere, Eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko sistemak gaur egun duen %95 hobariari, Geotermia, aerotermia eta biomasa gehitzea proposatzen dugu.

Kirolei dagokionez, egindako proposamenak lau dokumentutan laburbiltzen dira:

- Kiroldagiko abonua proposamena
- Kirolekin egiten proposamena
- Uda kanpainako proposamena
- Kiroldagiko sarrera eta instalazio alogeren Tasak

Gainontzekoei dagokionez, proposatzen dugun igoera orokorra: %2,5koa da, KPlak gaur gaurkoz igo duenaren azpitik, argindar prezioaren garestitze ez ohikoak, KPlaren balioa puztu egin duela iruditzen zaigulako. Bi urtetara begira aurrezki kutxen erakundeak egindako aurreikuspena oinarri hartuta, 2 urteetarako proiektatzen den %5 eko igoeraren erdia, aurtengo urtean aplikatzea proposatuko dugu.

2.- Gehiengo (EHBildu, aurka, eta EAJ, alde), EAJ taldeak proposatutako 2022ko Zerga Ordenantzaren aurkako irizpena ematea.”

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAUA Erregulatuak, bere **16. Artikulu**an dio:

“1. Udalerriko korporazioek, tributuen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta tributuen kuota ezberdinen zehaztapenerako beharrezko diren elementuen finkapenerako hartutako akordioak eta baita ere, dagozkien Ordenantza Fiskalaren onespenean eta aldarapenak Entitatearen iragarki taulan jarriko dira agerian hogeitamar egunetan zehar, berauetan interesguneak espedienteak aztertzea ahal izango dutelarik eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu.

2. Udalerriek, dena den, azalpen iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dituzte. Era berean, 10.000 pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten Entitateek Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu beharko dituzte.

3. Jendaurreko erakusketarako epealdia amaitu ondoren, Udalerriko korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarapenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

4. Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarapenen testu bateratuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratzen hori burutua izan ez dadin artean.

5. Hogeita mila pertsona baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietan, bertako tributuen Ordenantza Fiskal erregulatuak testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilabetekoaren barruan. Dena den, Udalerriek, argitaratutako Ordenantza Fiskalaren kopia luza beharko dizkiete eskatzen dituztenei.”

Aipatutako arauaren **25. Artikulu**ak honako hau xedatzen du:

“Herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasak ezartzeko erabakiak edo zerbitzu berriak osorik zein partez finantzatzekoak, txosten tekniko-ekonomikoak behin ikusita hartu behar dira; txosten horietan, hurrenez hurren, herri jabariaren merkatuko balioa edo zerbitzu horiek estaltzeko aurreikuspenak den era adierazi behar dira. Aurreko paragrafoan aipatu den txosten tekniko-ekonomikoa aurkezteak ez da beharrezkoa izango erabakiak izaera orokorreko birbaloratze edo eguneratzeengatik hartzen direnean edo tasen zenbatekoa murrizten denean, kasuan kasuko zerbitzuaren kostua nabarmen jaisten ez bada behintzat. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren

ondorioetarako, murrizpena nabarmena dela joko da aurreikusten denean zerbitzuaren kostua 100eko 15 baino gehiago jaitsiko dela tasak ezarri edo aldatzeko erabakiari erantsitako txosten teknikoekonomikoan aurreikusitakoaren aldean. Txosten tekniko-ekonomikorik ez aurkeztea arrazoitzeko, gastua kudeatzen duen organoak berariaz utzi behar du jasota aldaketa onartzeko espedientean kostua ez dela modu nabarmenean murrizten.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Ogasun batzordeak 2022ko zerga Ordenantza fiskalaren aldaketaren irizpena onartzea, espedientean agertzen den moduan.

BIGARRENA.- Erabaki hau, 30 egunez, udal iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetako duen egunkari batetan argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

HIRUGARRENA.- Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betikotzat joko da.

Ordenantza fiskala behin betiko egindakoan, ordenantza fiskalaren aldaketa osorik argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Behin argitaratua, interesdunek erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu ahal izango dute Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean ala 2 hilabeteko epean errekurtsio kontentzioso-administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazio auzian.

EAJ taldeak 2022ko Zerga Ordenantzaren proposamena hau da (Kontu-hartzaileak igorritako agiria):

*“Oñatiko EAJ-PNV udal-taldea
2022. urteko zerga-arautegia. Proposamena*

EAJ-PNV udal-taldearen proposamena zergarik ez igotzea. behar Oñatin. Zero igoera da, beraz, gure talderaren proposamena. COVID 19 gaixotasunarekin hainbat hilabete bizita gero, iruditzen zaigu 2022. ekitaldian ez dela inolako igoerarik ezarri behar. Izan ere, herritarrek, autonomoek eta enpresek, oro har, ahalegin ekonomiko handia egin dute hilabete hauetan guztietan; uste dugu arlo horietako langileek likidotasuna (likidotasun handiagoa) behar dutela

Gainera, gogoratu behar da Oñatiko udalak diru-soberakina daukala gaur egun, ez baitu erabaki eta zehaztu oraindik nora bideratuko duen, ez 2020. urteko ekitaldiko soberakina, ez kiroldegiko obrak gauzatzeko 2019. urtean eskatu zuen kredituaren soberakina.

Horiek horrela, EAJren udal-taldeak hainbat hobari proposatu ditu, hiru helburu argirekin. Batetik, COVID 19k erasandako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen arloa sustatzea. Bestetik, landa-eremuaren ekarpena eta lana babestea eta saritzea. Azkenik, jasangarritasuna eta klima-aldaketa saihestea.

1. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloa sustatzeko.

1.1-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergari aplikatuko den hobaria rekin bat egiten dugu.

1.2-Estabilezimenduen jarduera ikuskapenaren tasari aplikatutako hobariarekin bat egiten dugu:

1.1-vii.Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzea: Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean sailkatutako jarduerak eraikitzean edo birgaitzean %75eko hobaria.

1.2.- Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzeko helburuarekin %40ko hobaria izango dute, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean sailkatutako jarduerak.

Gaia onartuta dago batzordean.

2. Landa-eremuaren ekarpena eta lana babesteko eta saritzeko.

1.c- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren hobariak:

Baserri katalogatutako eraikinak (izaera rustikoa).

- ii. %95eko hobaria aplikatzea, Baserri batean bigarren etxebizitza egiteagatik, gure landa-sektorearen, gure historiaren ondare direlako. honako baldintzapean: Obra bukatzen denetik urte beteko epean bigarren etxe bizitzan norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan erroldatze hori mantentzen bada Gaur egun, %50eko hobaria dago ezarrita.

5

3. Jasangarritasuna jomugan eta klima-aldaketa saihesteko.

- Berokuntza-instalazio iraunkorrak: plaka fotovoltaikoak eta ur-berokuntzako eguzki-plakak. % 90eko hobaria, obra-baimenean.

- Berokuntza(Geotermia, Aerotermia edo Biomasa):

% 90eko hobaria, obra-baimenean.

% 50eko hobaria Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan, 1.500€-ko mugara arte.

- Trakzio mekanikoko ibilgailuak.

- % 75eko hobaria zergaren kuotan motor hibridoa (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin, edo argindarrarekin eta gasarekin) duten ibilgailuetan. Gaur egun, % 50eko hobaria dago ezarrita. Etxetik bertatik etorri behar dira homologatuta.

- % 95eko hobaria zergaren kuotan lantegitik bertatik homologaturik datozen %100 motor elektrikoko ibilgailuetan. Gaur egun, % 75ekoa hobaria dago ezarrita.

Kiroldegiko abonuen proposamena.

Atal honetan ere ez dugu proposatu igoerarik.

EHBildu udal gobernua proposatzen duen 2022ko Abonuen estrukturan, norbanako nahiz familiarraren aukera egoten jarraitzen dute, baina herritarraren egoeran arabera abonoak ezberdindu baino (langile, pentsionista, langabetu, alargun, banandu, jubilatatu...) errenta mailaren arabera hobariak planteatu dira, behar handiena dutenek jaso dezaten hobari bidezko laguntza. Honen haritik,

Abonuen estruktura berrian, Nagusien tarifa orokorra 180€ hartu da oinarri bezala eta

.EAJudal taldeak ez dugu bat egiten proposamen honekin,2021eko tarifarekin alderatuz,%20ko igoera suposatzen duelako.(aurrekonagusien tarifa orokorra 149`45€ da gaur egun).

TASAK:

Atal honetan ere ez dugu proposatu igoerarik. Hala ere, EAJren udal-taldearen iritzian, hainbat doikuntza egin beharko lirateke.

Kirol-jardueretako tasetan (igerilekua, frontoia, tenis pista...), gure proposamena da handitzea adinaren muga, tasaren murrizketa egiteko; hau da, 21 urtera arte ezarrita dagoen adin-epea 25 urtera arte luzatzea.

Oro har, EAJren udal-taldeak ondo ikusten du Kiroldegiko tasen berrantolamentua.

Oro har, EAJren udal-taldeak ondo ikusten du Kiroldegiko tasen berrantolamentua. Izan ere, azken sei urteetan, horixe eskatu dugu behin eta berriz. Gainera, halaxe aholkatu zuen Kirol Management-ek ere berak egindako txostenean; hain zuzen, EH Bilduren udal-gobernuak 2011-2015 legealdian eskatu eta ordaindu zuen txostenean.“

PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Igartua jauna.
Galdos andrea.
Altuna jauna.
Igartua jauna.
Biain jauna.
Etxegoien andrea.
Igartua jauna.

6

EAJ taldeak 2022ko Zerga Ordenantzaren proposamenari dagokionez, Ogasun batzordean gehiengoz (EHBildu, aurka, eta EAJ, alde), aurkako irizpena emandakoa, ez da onartzen. Proposamen hau, osoko zuzenketa (enmienda) bat balitz bezala hartzen da. Aldeko botoak: 5 (5 EAJ). Aurkako botoak: 10 (10 EH BILDU). Beraz, EAJ taldearen proposamena ez da onartzen.

Alkatetzaren proposamena aztertuta, EH Bildu udal taldeak proposatua, eta Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena onartu egin da. Aldeko botoak: 10 (10 EH BILDU). Aurkako botoak: 5 (5 EAJ).

Besterik ezean, 19:42ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan